

INDUSTRIAN GORA ETA BEHERA

Lur Mallea

Arras maskulinoa da bigarren sektorea. Haren egoerak okerrera egindu azken urteotan, eta geroz eta gehiago pentsatzen dute konponbidea bilatzen lagun dezaketela emakumeek. Topikoen eta diskriminazioen mehatxa guztiz uxatu ez bada ere, industria sektorea egitasmo, kanpaina eta dirulaguntza proiektuz bete da.

Mehategi, lantegi zein tailerretan lan ugari eginikoak dira emakumeak historian zehar. Gure herriko ekonomiaren eragile izan den industria jardueran behar neketsu, zikin eta luzeak eginez aritu dira gizonezkoekin batera. Baina industria sektorearen egoera zeharo aldatu da. Gaur egun, errobotika eta bestelako

teknologiaren erabilpenari esker, nabarmen arindu da lan fisikoa, baina honek, aldi berean, eskulan berezitua giutxitzea ekarri du. Confesbask-en arabera, “lau mila lanpostu betetzeko daude Euskadiko industria enpresetan”. Langile beharrezana asetzeko, etorkinak kontratatzea jo dute askok. Hala ere, ezin daiteke hori

epe luzerako irtenbide moduan hartu. Hain zuzen, horregatik ari dira erakunde publikoak zein enpresa pribatuak tokiko gazteak eta langabetuak industria gaietan trebatzeko hainbat ekimen bultzatzen. Ahaleginaren emaitzak ere iristen hasiak dira: gaur egun, gazte gehiagok jotzen dute Lanbide Heziketara. Dena den,

Emakumea bigarren sektorean

Pixkanaka, handitu egin da emakume langileen kopurua industrian, gainerako sektoreetan baino erritmo motelagoan halere. “Emakumearen presentzia txikia da, %17koa gutxi gorabehera”, ELA sindikatuko Nerea Larrinagaren esanetan. Emakumeak lan-

deetan sartzea zaila du, esaterako. “Emakumeak ez kontratatzen erabakia hartuta duen enpresarik ere badago”, aditzera eman du ELA sindikatuak.

Gauzak horrela, tradizionalki gizonezkoen lan esparrua izan den sektorean aurrera egiteko, ezinbestekoa da bi faktore betetzea: topiko zaharrak haustea

Pixkanaka, handitu egin da emakume langileen kopurua industria arloan, gainerako sektoreetan baino erritmo motelagoan halere. “Emakumearen presentzia txikia da, %17koa gutxi gorabehera”.



Urteetan hazkunde demografikoak behera joateko izan duen joerak kalte handia eragin du eta, gaur egun, ez da langile nahikorik. Hori dela eta, andrazkoek inoiz baino aukera gehiago dute industrian parte hartzeko.

urteetan behera joateko joera izan duen hazkunde demografikoak kalte handia eragin du lan arloan eta, egun, ez da langile nahikorik. Hori dela eta, andrazkoek inoiz baino aukera gehiago dute industrian aritzeko.

tegiko administrazio postuetan, kateko muntaketa lanetan zein pieza txikiak maneiatzen aritzen dira gehien bat. Lan arloaren eta kategoriaren arabera, emakume portzentajea behera doa eta ekoi zen handia duten erakun-

eta enpresarien trabak desagerraraztea. Eskulan beharrezan eta berdintasun politikak behartuta ekin diote erakunde publikoek eta pribatuek orain arteko jarrera aldatzeari. Horretarako, ondoko baliabideei heldu diote: informa-

zioa, orientazioa, formakuntza eta enplegu kanpainak.

Industriaratzeko ekimenak

Azken hamarkadan, informazio eta orientazio alorrak landu ditu batik bat Confesbask-ek. Ho-




Imagen cedida por la Asociación NEBA-NEBA

rrren barruan, batetik, neskatok Lanbide Heziketaren alde egin dezatela bultzatu du eta, bestetik, enpresarietara ulerrazazi die emakumeak kontratatzeak ez duela arazo, aldaketa zein gastu handirik suposatzen. Mesfidatienak konbentzitzeko asmoz, plantilan emakumeak dituzten enpresen balorazioak batu eta txosten bat osatu du. Bertan aipatzen denez, emakumeak lana ondo egiteko ardura handiagoa hartzen du, lan errepikakorrek burutzeko erresistentzia hobea du, baita pieza txikiakin moldatzeko erraztasun handiagoa izan ere.

Txosten horretan parte hartu duten enpresetako bat da Orbea

bizikleta lantegia. Bertan, behar-ginen %40 emakumeak dira, eta kopuruak gora egiten du lantegiaren lan karga ugartzearekin batera. Tailerrean normaltasun osoz lan egiten dute emakumeek, eta horixe da, hain zuzen, urtero jasotzen dituzten bisitarietara erakutsi nahi dietena. “Bigarren Hezkuntzako neska-mutilak, oraindik ere, harritu egiten dira”, esan dute Orbeako ordezkariak.

Emakintza Proiektua

Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua dugu Emakintza proiektua. Orain dela bost urte jarri zuten martxan, emakumeak industria sektorean trebatu eta la-

Ezinbestekoa da bi faktore betetzea: topiko zaharrak haustea eta enpresarien trabak desgerraraztea. Eskulan beharrezkoak eta berdintasunerako politikak behartuta ekin diote erakunde publikoek eta pribatuek orain arteko jarriera aldatzeari.

neratzeko helburuarekin. Iaz 512 bizkaitarrek eman zuten izena bertan eta, aukeraketa prozesua-

ren ondoren, 114 emakume igaro ziren formakuntza fasera. Julio Artetxe, Bizkaiko Enplegu eta Trebakuntza Foru diputatuak, zera dio harrotasunez: “Lantegian bertan praktikak egin eta gero, behin betiko kontratua izango dute proiektuko parte-hartzaileek”. Konpromiso hori bere egin du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Ontzigitza, aeronautika eta metalgintza dira eskulan premia handien duten esparruak. Elektrikari, tubo-egile, fresatzaile, tornulari eta soldatzaile lana egiteko 114 emakume trebatu dituzte. Jose Esposito elektrizitate irakasle izan dute Santurtziko San Jorge institutuan. “Hogeita hamar urte daramatzat irakasle lanetan eta inoiz ez dut izan tamaina honetako motibazioerik

duen talderik”, esan du. Motibazioak eta beren artean duten lehiak harritu dute Jose. “Oso lehiakorrek dira; gizonen kurtsoetan ez da horrelakorik gertatzen”. Bestetik, lanari begira ikasleek etorkizun ona izango duten itxaropena du: “Trebakuntza, behintzat, badaude”. Ziurdago gizonen langileek ondo hartuko dituztela, baina “enpresariak emakumei aukera ematea garrantzitsua” iruditzen zaio.

Desabantaila egoeran daudenengan pentsatuz planteatu du Foru Aldundiak Emakintza programa eta, horren arabera, lehen tasuna eman die emakume langabetei, ziurtasun gutxiago enplegua dutenei, trebakuntza eta esperientzia txikia dutenei zein familia ardurak dituztenei. Dena

Emakumeak lana ondo egiteko ardura handiagoa hartzen du, lan errepikakorrek burutzeko erresistentzia hobea du, baita pieza txikiakin moldatzeko erraztasun handiagoa izan ere.

dela, praktikak egin eta lan kontratua sinatzeko orduan, denek aukera berberak izan dituzte.

Diru-laguntzak

Ikasketek iraun bitartean, emakumeek diru-laguntza bat

Elektrikari, tubo-egile, fresatzaile, tornulari eta soldatzaile lana egiteko 114 emakume trebatu dituzte.



“Gehiegizkoa da enpresa bati horrenbeste diru ematea gauza normal bat egiteagatik, emakumeak kontratzeagatik, alegia”

jaso dute Foru Aldunditik familia zein etxebizitzari loturiko gastuak ordaindu ahal izateko. Diru-laguntza horien onuradunak izan dira proiektuarekin bat egin duten enpresak ere. Zehazki, “hamazortzi mila euro jasoko dute” 114 emakume hauetako-

ren bat behin betiko langilezat hartuko dituzten enpresek. Ziur-riren ez dute emakume hauek kontratatzeke eragozpenik jarriko, Foru Aldundiaren bitartekaritzari esker enpresen premien neurria eginiko ikasketak burutu dituztelako.

Sindikatuak, baina, ez daude diru-laguntzen formula honekin ados. ELAren iritziz, “gehiegizkoa da enpresa bati horrenbeste diru ematea gauza normal bat egiteagatik, emakumeak kontratatzeagatik, alegia”. Aldiz, diskriminazio egoeretan kontrolak ezartzea eta kontzientziario kanpainak bultzatzea egokitzat jotzen du sindikatuak. “Bidezkoa ez dena zera da: enpresei dirua oparitzea”.

Diskriminazioari aurre egin

Bestalde, halako proiektuak gertutik jarraitu behar direla uste dute sindikatu guztiek, aurrera begira diskriminazio kasuak gertatzea posible baita. Ohikoa izaten da emakumeek uneoro gizonak beste dela erakutsi behar izatea, kategorian gora egiteko oztipoak aurkitzea edota haurdun geratzen diren unean hainbat trabe aurre egin behar izatea. Eta enpresan sartu baino lehen ere egon badira oztipoak. Izan ere, lanposturako kualifikazioa eskatzeko orduan, enpresariak emakumeekin zorrotzago jokatzeko joera izaten dute. **F**



“Hemen, tailerretan, fenomeno egoten da bat”

Duela sei urte hasi zen Alaitz Berrizko alikate enpresa batean lanean. Orduan lau emakume baino ez zeuden; orain, berriz, hamabi dira dira hogeita hamabost pertsonak osatzen duten plantilan.

Zein enpresa mota da zurea?

Metal arloko lantegia da eta alikateak egiten ditugu. Prozesu osoa jarraitzen da bertan: alikateak muntatu, paketatu eta bidali egiten dira.

Bereizketarik al dago gizonen eta emakumeen egindako lanaren artean?

Ez; andre zein gizon izan berdin du: egitekoa aldatu egiten da, beraz, denok pasatzen gara postu berberetatik. Tailerrean gabiltzanok soldata bera dugu, ez dago batzuen eta besteen artean alderik. Nagusia emakumea da eta, hortik hasita, berdin egiten dugu lan. Esaten dute andreak gutxiago irabazten dutela... Nik, baina, ez dut horrelako kasurik ezagutzen.

Bada emakumeek bakarrik egiten duten lanik?

Biltegian kutxa txikiak egiten ditugu eta zeregin horretan, normalean, neskek egoten gara. Mutilak, esku handiagoak dituztenez, baldarragoak izaten dira. Montaje lanari dagokionez, pieza txikiak trebeagoak izaten dira andreak.

Zer esango zenieke ikasketak aukeratu beharrean diren gazteei?

Lanbide Heziketako modulo bat ikastera animatuko nituzke. Hemen, tailerrean, fenomeno egoten da bat! Gainera, jendea emakumeak ikastera ohitu egin da; lehen, gizonak baino ez ziren egoten. Baina orain geroz eta emakume gehiago gara.

“Prest sentitzen naiz, beste edozein bezala, industrian lan egiteko”

Hainbat hilabetez, elektrikari lanetarako bere burua trebatzen aritu da Josune Arregi. Emakintza proiektuan parte hartu duten 114 emakume bizkaitarretako bat da bera. Gutxi barru ekingo dio, profesional gisa, telefonia eta sare instalatzaile zein koadro elektriko muntatzaile lanari.

Zelan iritsi zinen Emakintza proiektura?

Egunkarian ikusi nuen iragarkia eta, bertan zioenez, industrian gizonen bete gabe utzitako postuak emakumeek ahal izateko ekimena martxan jarri behar zuten. Internet bidez eman nuen izena, eta handik denbora batera Lanbide-tik deitu zidaten. Aukeratze-proseua eta elkarrizketa pertsonala igaro ondoren, programan onartu ninduten.

Bazenuen industria gaietan aurretiazko esperientziarik?

Etxe berria erosi genuenean osorik konpondu genuen senarrak eta biok: elektrizitatea, iturgintza... Lan denak egin genituen elkarrekin. Ordutik, halako beste zenbait lantxo egin izan ditut.

Zerk piztu zizun industriadako interesea?

Bost urte neramatzan lanik egin gabe; bigarren alaba jaio zenean utzi nion lan egiteari. Lan merkatura bueltatzeko gogoia neukan. Dendari zereginetan aritua nintzen batik bat, baina sektorez aldatu nahi nuen. Industrian sartzea pentsatu, eta orduantxe sortu zitzaidan aukera bikain hau. Saiakera egitea erabaki nuen, eta hementxe nago.

Elektrizitate gaiak ikasten hainbat hilabete pasa dituzu, eta laster enpresa batean hasiko zara lanean. Nola baloratzen duzu orain arteko esperientzia?

Oso aberasgarria izan da. Gogor ikasi behar izan dugu: gai asko ziren, azterketa ugari izan ditugu, proiektuak egin beharra geneukan... Irakasleak oso jator portatu dira gurekin; asko irakatsi digute eta oso motibatu gauda. Industrian lanean hasteko gogotsu gauda.

Zer izan da gogorra?

Formakuntza ikastaroa arratsaldean egin behar izatea. Gabez iristen nintzen etxera, egun osoa erritmo bizian igaro eta gero. Baina horrenbeste denbora lan egin gabe egonda, erronka pertsonala izan da honaino heltzea. Horregatik nago hain pozik, gauza asko ikasi ditudalako eta, beste edozein bezala, industrian lan egiteko prest sentitzen naizelako.